

Etika Publikorako Batzordea

1/2017 gaia

(...) KARRERAKO FUNTZIONARIOAK JARRITAKO SALAKETARI BURUZKO ERABAKIA. (...)EAN DU BEHIN BETIKO DESTINOA (...) ANDREAK, ETA SALAKETA BAT JARRI ZUEN “(...)KO (...)JEAN (...) LANPOSTUA BETETZEKO (...) SAILAK EGINDAKO DEIALDIAN IZANDAGO GORABEHEREI BURUZ”. DEIALDI HORRETAKO IZANGAIETAKO BAT IZAN ZEN ETA, AZKENEAN, HARI ESLEITU ZIOTEN LANPOSTUA.

1.- 2016ko azaroaren 22an, Etika Publikorako Batzordeari zuzendutako idazki bat erregistratu zuen (...) andreak. Idazki horretan adierazten du (...)ko (...)ean lanpostua betetzeko (...) Sailak egindako deialdian gertatu ziren zenbait gorabehera salatzeko beste idazki bat bidali zuela irailaren 20an –deialdian parte hartu zutenetako bat izan zen bera–, eta gaur egunera arte ez duela jakin idazki haren ildotik zer kudeaketa egin den, edo ez duela jaso “idazki hari buruzko inolako jakinarazpenik”.

2.- Aurreko puntuan aipatutako idazkiaren amaieran eskatzen du *“prozedura horri buruzko informazioa emateko eta zer fasetan dagoen adierazteko”*. Bere mugikorraren telefono-zenbakia erantsi zuen, harekin harremanetan jarri ahal izateko, eta, pentsatzekoa denez, hari adierazi beharrekoak bide hori erabilita adierazteko.

3.- Idazki horrekin batera beste baten fotokopia ere erantsi zuen, 2016ko irailaren 19ko data eta (...) sailaren irailaren 20ko sarrera-erregistroa duena, non salaketa jartzeko arrazoi izan ziren gertaerak kontatzen dituen.

4.- Azaroaren 25ean, Etika Publikorako Batzorde (EPB) honen Idazkaritza harremanetan jarri zen salaketa-egilearekin –hark emandako telefono-zenbakira deitu zuen– adierazteko batzorde hau ez zela prozedurarik izapidetzen ari aipatutako gai horri buruz, ez zuelako ezereen berri izan azaroaren 22ko idazkia jaso arte, eta, orobat, esateko une horretatik aurrea hasiko zela gaia aztertzen, ohiko prozedurari jarraituz.

5.- Hemen aztertzen ari garenari dagokionez, salaketa-idazkiari erantsi zaion gertaeren zerrendan adierazten da (...) Saileko zenbait pertsonak eta prozedura kudeatzeko ardura duen Balorazio Batzorde Orokorreko zenbait kidek azpibatzerdeko kide bat [egia esan, Batzorde Teknikoa du izena organo horrek, deialdi hori aurrera eramateko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariak 2016ko apirilaren 25ean emandako Ebazpenaren bosgarren eta seigarren oinarrietan xedatutakoaren arabera] (...) izangaiaren alde egitera “behartu” zutela, gainerako izangaiak kaltetuz, eta, bereziki, salaketa egin duena. Izan ere, azpibatzerdeko kide hark prozedura horretan parte hartu zutenek egindako txostenak ebaluatu behar zituen. Kontaketa horretan zehazten da, halaber, aipatutako pertsona horiek “mehatxatu” egin zituztela haien

nahietara “behartu” nahi zituztenak, esanez kendu egingo zituztela azpibatordetik eta haiek egindako eskaerak onartuko zituzten beste batzuk izendatuko zituztela.

6.- Bide horri helduz, idazkian azaltzen da (...) Saileko zenbait langile aipatutako azpibatorde horretako kide batekin aritu zirela hizketan, bai telefonoz bai aurrez aurre, baina ez da argitzen norekin. Salaketa-egileak elkarrizketa horien berri nola izan zuen ere ez du argitzen –ez baitzuen elkarrizketa horietan zuzenean parte hartu–, eta ez du esaten zertan oinarritzen den kontatutakoa zehatza eta egiazkoa dela babesteko, bigarren eskuko erreferentzien bidez izan baitu gertatutakoaren berri.

7.- Salaketa-idazkiaren arabera, elkarrizketa horietako partaidetako bat (...) izan zen, Balorazio Batzorde Orokorreko kidea ((...)aren orde), eta deialdiaren baremazioak egin zituen. Beste bat (...) (...) Sailaren (...)ko zuzendaria. Salaketa-gileak “epaimahaiarekin harremanetan jartzea” egozten dio, epaimahaia behartu eta haren erabakia aldarazteko, zeinak haxe eskatu baitzien epaimahaikideei:

- Emaizak berrikusteko
- Jende gehiago gainditzeko, nahiz eta horretarako txostena gaindituta eduki behar zen eta baldintza hori salaketa-egileak bakarrik betetzen zuen.
- Probetan, elkarrizketa bat eranste; deialdian ez zen halakorik jaso, nahiz eta epaimahaiak, bere garaian, eskatu.

Biak, teknikaria eta zuzendaria, deialdian aurreikusitako Balorazio Batzorde Orokorreko kide ziren –lehena, batzordeko kide bat eta, bigarrena, batzordeko lehendakaria–, eta ebazpen-proposamena egitea zuten zeregin.

8.- Zeharka bada ere, (...) ere aipatzen da idazkian, (...) Sailaren (...)ko zuzendaria. Hari buruz esaten da (...) salaketan nor den adierazi ez den azpibatordeko kidearekin ustez izandako telefono-elkarrizketa batean esan ziola (...) izangaiak “berarekin eta (...) hitz egin” zuela, bestelako zehaztasunik eman gabe.

9.- Era berean, salaketa-idazkian nabarmentzen da –salaketa bermatzeko balioko lukeen frogarik eman gabe, eta, salaketa-egilearen bertsioaren arabera, berak zuzenean parte hartu ez zuen kide anitzeko organo batean gertatutakoen berri nola jakin zuen azaltzeko iturriaren berri eman gabe– (...) izangaiaren txostena aldatu egin zutela prozesuan zehar, hainbeste non azpibatordera iritsi zen alea, hasieran baztertutako txostenaren alea, alegia, “ez zen <<jatorrizkoa>> eta <<zuzenduta>> zegoen”, asmoa izanik txostenaren formatua deialdiaren arautegian ezarritakora ahalik eta gehien egokitzea. Hala bada, salaketa-egileak galdea hau egiten du: “Noiz, nola eta nork aldatu zuen txostenaren formatua?”

10.- Amaitzeko, salaketa-egileak argitzen du eskatutako lanpostua berari esleitzen dion ebazpena emanez bukatu zela prozedura, eta berak jarritako salaketaren asmoa, beraz, ez dela

esleipena aurkaratzea, baizik eta gertatutakoaren berri zabaltzea “aplikatu beharreko arautegiarekin errespetuz jokatu ez delako”, eta berriz ere horrelakorik gertatzea nahi ez duelako.

11.- Bi idazki horiek salaketan aipatu diren kargu publikoei bidali zitzaizkien berehala, egoki iritzitako alegazioak egin zitzaizten.

12.- 2016ko abenduaren 21ean, (...) (...) Sailaren (...)ko zuzendariak idazki labur eta zehatz bat bidali zion Etika Publikorako Batzorde honi –aurreko eguneko data zuela–, non bi alegazio egiten zituen:

a) Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2016ko apirilaren 25eko Ebazpenak ezartzen duela izan daitezkeen erreklamazioak aztertu ondoren argitaratuko duela behin betiko ebazpena Langileriaren Kudeaketarako zuzendariak. Ebazpen hura 2016ko ekainaren 21ean argitaratu zen, Balorazio Batzorde Orokorrek erreklamazioak aztertu ondoren.

b) Ez duela (...) ezagutzen, eta ez duela harekin sekula hitz egin, eta ez duela harekin idatzizko komunikaziorik izan.

13.- 2016ko abenduaren 22ko data duen idazki baten bidez –sarrera-erregistroa hurrengo egunekoa da–, aurkeztu zituen bere alegazioak (...) . Lau atal ditu, eta bost agiri-eranskin gehitu dizkio idazkiari.

14.- Harrituta dagoela adierazten du, batetik, salaketa-egileak “ustez jarduera irregularrak egitea” egozten dielako Balorazio Batzorde Orokorreko zenbait kideri, helburua, nonbait, “salaketa egileari kalte egitea eta beste izangai baten alde egitea izanik”, baina, bestetik, salaketa-egileak berak aitortzen duelako hura izan dela lanpostua lortu duena; ildo horretatik hau azaltzen du:

“(…) lanpostua betetzeko prozeduran, izangaiek aurkeztutako txostenak balioetsi zituen batzorde teknikoak, eta aurkeztu ziren zortzi izangaietatik bakar batek soilik lortu zuen eskatutako gutxieneko puntuazioa. Gainera, txostenen balioespenez, txostenen zalantza sortu zen txosten bat forma-alderdiak ez betetzeagatik bakarrik prozeduratik baztertu zitekeen erabakitzeke (luzera, lerroartekoak eta letra tamaina). Horrenbestez, Balorazio Batzorde Orokorrek eta nik, batzordeko lehendakari naizenez, kontsulta egin genien saileko zerbitzu juridikoei. Haiek erantzun ziguten deialdian ez zela ezarri betekizun gisa txostenak forma-alderdiak bete behar zituenik, eta, horrenbestez, ezin zela izangai bat arrazoi horregatik bakarrik baztertu. Erantzun hori bera eman zitzaion batzorde teknikoari ere, txostenak balioesterakoan kontuan har zezaten. Irizpide hori, zerbitzu juridikoei emandakoa, berretsi egin zuen (...)ko sailburuordeak batzorde teknikoko kideek

egindako kontsulta berberari 2016ko uztailaren 7an emandako erantzunean (laugarren agiria).

Horrenbestez, ezin da ondorioztatu prozeduran irregulartasunak egon direnik, deialdiaren oinarriak interpretatzerakoan balorazio batzorde orokorrak zerbitzu juridikoen irizpidearen alde egin duelako eta ez batzorde teknikoak izandakoaren alde”.

15.- (...)en txostena prozeduran zehar ustez aldatzeari dagokionez, (...) argudiatzen du izangaiek aurkeztutako txostenak ez direla inondik ere manipulatu, edukia berbera dela. Adierazi du txostenak fotokopiatu edo eskaneatu egiten direla batzorde teknikoari bidaltzeko, haiek ebalua ditzaten, eta prozesu horretan ikuste alderen bat izan daitekeela kopia batetik bestera, baina horrek ez dituela edukia eta testuaren forma-alderdiak aldatzen. “Erreklamazio egileak egiaztatu egin beharko luke agirietan zer aldaketa nabarmen egin den”.

16.- Memorien balioespenari dagokionez, esaten du administrazioan normala dela “egiten diren balioespenekin batera atal bakoitzean emandako puntuak zehaztasunez justifikatzen dituen txostenak egitea”. Hori oinarri hartuta egin behar du ebazpen-proposamena balorazio batzorde orokorrak (seigarren oinarria). Ziurtatu behar du, beraz, balioespenak baremoaren arabera egin direla eta behar bezala justifikatuta. “Gaingintzeko behar zen gutxieneko puntuazioa lortu ez zuen txosten-kopurua ikusita, puntuazioak berrikusteko eskatu zion batzorde teknikoari balorazio batzorde orokorrak, eta emandako puntuazioa justifikatzeko txosten bat egiteko”. Horrekin batera esaten du Administrazioak beti arrazoitu behar dituela bere jarduerak, eta, horrenbestez, ezin dela “behartze- edo hertsatze-neurri gisa interpretatu” batzorde teknikoari eskatzea norgehiagoka-prozedura batean emandako puntu-kopuru guztiak justifikatzeko txosten bat egiteko. “Balorazio batzorde orokorrak, bertako kide guztiak eta lehendakariak, batzordeko ordezkari garenez, prozedura gardena izan dadin eta deitutako lanpostu guztiak merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuz bete daitezzen zaindu behar dugu”.

17.- Elkarrizketa bat egiteko aukerari buruz, idazki horretan azaltzen du (...)ko (...)n (...) lanpostua betetzeko prozeduran egin ez bazen ere, deialdiaren bosgarren artikuluan jasota datorrela izangaiek haien txostenak ahoz defendatzera deitu daitezkeela, batzorde teknikoak egoki irizten badio. Horrenbestez, zuzenbidearen arabera dela eta prozedurarekin bat datorrela batzordean eztabaidatzea izangaiei beren txostenak defendatzen uztea komeni den, are gehiago kontuan hartuz aurkeztutako zortzietatik zazpi ez zutela gainditu.

18.- Salaketa-idazkian aipatzen diren telefono-elkarrizketei dagokienez, hauxe dio alegazioan:

“Aipatzen diren balizko telefono-elkarrizketei dagokienez – (...) andreak zeri buruz hitz egin zen badakiela dio—, ezin asko argitu, tartean ni nengoela dioenetan ere ez baitu nire solaskidea nor zen esaten. Edonola ere, ziurtatu dezaket, ez

telefonoz, ez bestela, ez naizela sekula saiatu batzorde teknikoko edo balorazio batzorde orokorreko inor behartzen, izangai baten kalifikazioa aldatzeko. Eta nik dakidala, batzorde teknikoko edo balorazio batzorde orokorreko beste inor ere ez da saiatu balorazioak aldatzeko gainerako kideak behartzen.

(...) jaunari dagokionez, berriz, ez da (...)ko (...)n lanpostua betetzeko egindako deialdian ezarritako batzorde bakar bateko kide, (...) k dioenaren kontra. Esandakoa justifikatzeko, balorazio batzorde orokorraren ebazpen-proposamena jaso den akta eransten dut, non parte hartu duten kide guztiak zein diren azaltzen den (5. agiria).

Esan dezaket, era berean, ez dudala hitz egin prozedura honetan ez (...) ez (...) izangaiekin, eta ez dudala txosten bat ere irakurri, salaketa-egileak dioenaren kontra. Ez naiz horietako inoren lagun, ez eta etsai ere, eta hala izan banintz uko egingo niokeen prozeduran parte hartzeari, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezartzen dena betez. Era berean eskatuko nukeen batzorde teknikoko edo balorazio batzorde orokorreko kideek ere uko egitea, jakin izan banu aipatutako 23. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatu zela”.

19.- Bukatzeko, (...) harritura eta kezkatuta dagoela adierazten du ezin duelako ulertu (...) bateko lanpostu bat betetzeko deialdi batera aurkezten den izangai batek nola jakin duen batzorde teknikoaren edo balorazio batzorde orokorraren barruan sortu diren eztabaiden eta bertako kideen iritzien berri. Eta berririo esaten du paradoxikoa dela prozesu batean lanpostua eskuratu duen izangaiak berak jartzea zalantzan prozesua bera, eta, gainera, ohiko prozesu-baliabideak erabili gabe egitea eta prozedura berezi honetara jotzea, zeinetan alegazio hauek egin diren.

20.- Hori horrela, hauxe da EPB honek, Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.4 artikuluko bigarren idatzi-zatiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, aho batez hartu duen

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1.- Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea politikaren etika-zentzua berreskuratzeko asmoz sortu zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko neurri gisa ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak identifikatu egiten ditu Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikoei eta parekatuei eska dakizkiekeen jokabide, jarrera eta portaerak, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan aurrez zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea da azken batean, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegina eginez.

2.- Etika eta Jokabide Kodeak oinarritzko bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna, kudeaketari lotutako erantzukizuna, gardentasuna eta gobernatze irekia, onestasuna eta desinteres subjektiboa, errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek erreferentzia-parametrotzat hartu behar ditu gai eta zalantza etikoei erantzun beharra egokitzen bazaio, beren borondatez kodearekin bat egiten duten kargu publikoek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko interesa duten gainerako pertsonen halakorik helaraziz gero.

3.- Horretarako, Kodearen 16.3 atalaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPB bera da organo eskuduna "Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio eta jokabideak ustez ez betetzeagatik egindako kexak edo salaketak jasotzeko, halakorik balego, eta dagokien bidetik bideratzeko".

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- 4/2015 erabakian adierazi genuenaren arabera, Etika eta Jokabide Kodea Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaren bidez onartu zen. EHAAn argitaratzen denetik aurrera sortzen ditu ondorioak —urte horretako ekainaren 3an argitaratu zen, hain zuzen—, eta 2. puntuari zehaztutako kargu publikodunentzat soilik du indar loteslea, kargu publikodun horiek lege ezarritako prozeduraren arabera izendatu eta Kodearekiko atxikipena formalizatu ondoren. Kodearen 18.3 puntuak horrela ezartzen du, zehatz-mehatz ezarri ere: "Kodea banaka atxikitzearen ondorioz, kargu publikodunek eta parekatuek beren gain hartzen dute beren bizitza publiko zein pribatuan betiere Kodean berariaz adierazitako balio, printzipio eta jokabideen edukiarekin, asmoarekin eta espirituekin bat datozen jokabide eta portaerak izateko betebeharra eta obligazioa".

2.- Ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak Arautzen dituenak, ez du aldatu EJKren aplikagarritasun-eredu subjektibo eta

denborazko hori. Lege horren 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan, "kargu publikodunen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak" jasotzen dira, eta printzipio horiek Legea indarrean sartu ondoren dira soilik lotesleak —Legea 2014ko azaroaren 1ean sartu zen indarrean—, eta 2. artikuluan zehaztutako kargu publikodunak soilik lotzen dituzte, kargu publikodun horiek ofizialki izendatu eta Legearen 11. artikuluan aipatzen den atxikitzeko sistemaren bidez Legearen aginduak betetzeko konpromisoa hartu ondoren.

3.- Aurreko puntuetan adierazitakoarekin koherentzia logikoa gordez, EJKren indar loteslea desagertu egiten da arau propioak dituen kargu publiko bat betetzen ari den pertsonak kargu publiko hori betetzeari uzten dioenean legez ezarritako prozedura betez; hau da, eskumena duen organoak kargua uzteko erabakia hartzen duenean eta kargu-uzte hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzen denean.

4.- Azken finean, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak Arautzen dituen Legeak 4. artikuluan aurreikusten duen katalogoan sartuta dauden kargu publikoak soilik behartzen ditu EJKk —horrenbestez, baztertu egiten dira katalogo horretan ez datozenak—, eta izendapena formalizatu eta kargu-uzteak ondorioak dituen egunera bitarteko denborarako behartzen ditu, bakarrik.

5.- Aurreko gogoetak ezinbestekoak dira Erabaki honen ikuspegi subjektiboa mugatzeko; izan ere, (...) k egindako salaketan (...) Saileko hiru pertsonak ustez egindako jarduerak jasotzen dira; baina pertsona horiek guztiak ez daude egoera berean, EJKren aginduen mende egoteari dagokionez.

6.- Hain zuzen ere, salaketa-idazkian EJKren kontrako jarduerak egin ahal izan dituela dioen saileko lehenengo pertsona (...) dela esaten da, (...)ko teknikari bat, Balorazio Batzorde Orokorreko kidea ((..)aren orde) eta deialdiaren baremazioak egin dituen. Salaketa faltsua izan daitekeen kontuan hartu gabe, (...) aurkeztutako alegazio-idazkiak dio (...) ez dela "(...)ko (...)n (...) lanpostua betetzeko egindako deialdirako osatutako batzorde bakar bateko kide, (...)k esaten duenaren kontra"; hori egiaztatzeko Balorazio Batzorde Orokorren akta baten kopia aurkeztu du, 5. agiri gisa identifikatu duena, non egiazta daitekeen pertsona hori ez dela ageri organo horretako kideen artean. Egia esan, langile publiko bat da, eta, horrenbestez, ez da sartzen EJKren "hartaile" direnen taldean eta EPB honen ezagutza- eta jarduera-eremu subjektibotik kanpo geratzen da. Langile publiko horrek administrazioko teknikari lanetan irregulartasunak egin izan balitu ere, EPB honek ez luke sekula haien berri izango, ez lituzke inola ere aztertuko, eta ez luke horien gaineko irizpenik emango.

7.- Baina kontrakoa gertatzen da (...) (...) Saileko (...)ko zuzendariarekin. Urtarrilaren 8ko 56/2013 Dekretuaren bidez izendatu zuten zuzendari (2013ko urtarrilaren 10eko EHAA), eta garaiz eta forman izenpetu zuen EJKrekiko atxikimendua, eta martxoaren 22ko 49/2016 Dekretuaren bidez onetsitako kargu publikoen katalogoan ageri da (2016ko martxoaren 30eko EHAA).

8.-Aurrekarietan adierazi denez, (...) k aurkeztutako salaketak ustez EJKren kontrako jarduerak egin izana leporatzen dio (...) ri; baina interesdunak, izapide kontrajarri baten esparruan, justifikatu, edo bestela esanda, gezurtatu egin ditu xeheki jarduera horiek guztiak, alegazio-idazki sakon eta dokumentatu baten bidez.

9.- Salaketa-egileak (...) ren kontra egindako akusazioak eta akusazio horiei aurka egiteko egindako alegazioak xeheki aztertu eta egiaztatu ondoren, EPB honek ez du ikusten (...) ren jokaerak EJKn jasotako balio, printzipio eta arauak urratu dituela adierazteko inolako zantzurik. Aitzitik, egiaztatzen du jokamolde arduratsu eta deialdiaren aurreikuspenekin bat datorrena izan duela, eta administrazioko jardunbide onak betetzen dituen. Edonola ere, jasota utzi nahi da, XI. Legegintzaldi honi hasiera emateko Eusko Jaurlaritzako sailtako zuzendaritza-taldeetan izan diren aldaketen esparruan, (...) utzi egin diola (...)ko zuzendari izateari, abenduaren 27ko 258/2016 Dekretuaren bidez (2016ko abenduaren 30eko EHAA), eta ez duela beste kargu publikorik hartu.

10.- Azkenik, ez dirudi EPB honek kontuan hartzekoa denik salaketa-idazkiak (...) (...)ko zuzendariari egiten dion erreferentzia ahul eta albokoa, (...) jaunak aurkeztutako alegazio-idazkian ukatu egin baitu inolako ustezko irregulartasunik egin duenik, eta irmo esaten du ez duela salatzaileak bigarren plano batean aipatu duen pertsona ezagutzen, eta ez duela, hortaz, harekin hitz egin, eta ez duela sekula, ez ahoz, ez idatziz harekin harremanik izan.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da Etika Publikorako Batzordeak aho batez hartutako

ERABAKIA:

1.- Ez onartzea (...) ek izandako jarduerari buruz (...) k aurkeztutako salaketa, langile publiko bat delako eta, horrenbestez, EJKren mende ez dagoelako, eta, ondorioz, EPB honen jardueraremu subjektiboaren barruan sartzen ez delako.

2.- Artxibatzea (...) k (...) desagertu den (...) Saileko (...)ko zuzendari izandakoaren jarduerari buruz aurkeztutako salaketa, dagoeneko ez delako EJKren aginduei atxikitako kargu publiko baten titular, baina, betiere, argi adierazita, salaketa-egileak (...) andrearen kontra egindako akusazioak eta (...) andreak salaketa horien aurka aurkeztutako alegazioak xeheki aztertu eta egiaztatu ondoren, EPB honek ez duela ikusten haren jokaeran EJKn jasotako balio, printzipio eta arauak urratu dituela esateko inolako zantzurik. Aitzitik, egiaztatzen du jokamolde arduratsu eta deialdiaren aurreikuspenekin bat datorrena izan duela, eta administrazioko jardunbide onak betetzen dituen.



3.- Artxibatzea, beste izapiderik egin gabe, (...) andreak (...) desagertu den (...) Saileko (...)ko zuzendariaren jardunaren kontra aurkeztutako salaketa, egindako akusazio ahula eta egiaztatu gabea goitik behera gezurtatu duelako interesdunak.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio.
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 18a.